

MUSIKA

Fernanda Abreuk
Bilbao Tropikaleko
bigarren kontzertua
eskainiko du gaur

Erredakzioa | BILBO

Fernanda Abreuk Brasilgo doinuak eramango ditu gaur Bilbora. Bilbao Tropikal jaialdiaren barruan, hego amerikarrak kontzertu bat eskainiko du San Frantzisko auzoko Mariaren Bihotza plazan, 22:00etatik aurrera. Saioa hasi baino ordubete lehenago, Txatunga Benbe perkusio-taldeak auzoa zeharkatuko du.

Gazterik hasi zen Fernanda Abreu musika lantzen, eta, gaur egun, Brasilgo artista garrantzitsuenetakoa bat da. Sei urtez Blitz taldeko bakarlari, 1986an norabidea aldatu nahi zuela eta bakarkako lanak jorratzearekin zion Abreuk. Ordutik hona, brasildarra musikan zein dantzan murgildurik ibili da. Lehenengoari dagokionez, orain arte bost disko grabatu ditu. Haietarik azkena, *Entidade Urbana* izenekoa, gaur aurkeztuko du, Bilbon.

Tradizioa eta teknologia

Abreuk ondo baino hobeto daki zeintzuk diren bere sustraia, eta, maiz, Brasilgo artista ezagunengana jotzen du inspirazio bila. Dena den, estilo berritzaileagoak erabiltzearekin ez dio muzinik egiten. *Sia Radical Dance Disco Club* bere lehen diskoa, adibidez, rockarekin eta disko musikarekin osatu zuen. *Sia 2: Be Sample*-n sanbarekin esperimentatzera ausartu zen bitartean, hurrengo lanak, *Da Lata* izenekoak, funka zuen ardatz. Bere belaunaldiko artista brasildarrak omentzeko helburuarekin, *Raio X*-n haien abestirik esanguratsuenak bildu zituen Abreuk.

Entidade Urbana diskoa bera omenaldi bat da, baina oraingo honetan hazten ikusi zuen herrialdeari eskaini nahi izan dio lana.

LABURAEAN

MARISOL RAMIREZ
Iazko Erromeria Eguna.

DANTZA

Bihar Erromeria Eguna
izango da Erreterian

Ereintza dantza taldeak Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak lagundurik Erromeria Eguna antolatu du biharko Erreterian. *Zatoz dantzara plazara!* lelopean, goizean dantzariak kalejiran ibiliko dira herrian zehar; eguerdian dantza ikuskizunen emanaldiak hasiko dira; arratsaldean, berriz, erromeria izango da Alhondigan.

ZINEMA

Jack Lemmon aktorea
omenduko dute gaur
Zarauzko Olerti Etxean

Jose Julian Bakedano zinean aditua hurbilduko da gaur 19:30ean Zarauzko Olerti Etxera zendu berri den Jack Lemmon aktoreari egiten dioten omenaldira. Bertan, aktorearen bizitza eta obrari buruz jardungo du Bakedanok.

MUSIKA

Esku soinuari buruzko
mintegia hasi da
Donostian

Gaurtik uztailaren 22ra bitartean Alexander teknika irakasteko esku soinuaren mintegia izango da Donostian. Besteak beste, Jean Luc Manca eta Anne Landa izango dira irakasleak.

KRITIKA MUSIKA

Jon Eskisabel

Soinuak zapuztutako ikuskizuna

Beck

Lekua: Donostiako Anoeta kiroldegia. Eguna: Uztailaren 11. Jende kopurua: 2.000 lagun inguru. Iraupena: Bi ordu.

Kontzertu bat biribila edo behintzat handia izateko zenbait faktore kontuan hartu behar dira. Horietako bat lehenagaia da, kantuak. Beste bat da zuzenekoan artista edo talde horrek ikuslearengan emozioak eragiteko duen gaitasuna. Ez nuke jakingo esaten zein den garrantzitsuagoa, badira diskoan nabarmendu ez arren gero zuzenean harridura sortzen duten taldeak, eta alderantziz, kantuen bikaintasuna zuzenekoan eramatean asmatzen ez duten taldeak. Bi faktore horien arteko uztarketatik abiatuz tarte zabala dago kontzertu bat epaitzeko.

Baina bada hirugarren faktore bat, balantza alde batera edo bestera eramanez dezakeena, eta hori soinua da. Orokorrean, soinu onik ezean zaila da kontzertu bat ontzat ematea, baita taldeak aurreko bi baldintzak betetzen dituen ere, Beckek herenegun Donostian emandako kontzertuan gertatu zen bezala.

Izan ere, kaliforniarrari ez zaizkio kantu onak falta, eta zuzenean ikuskizuna eskaintzen du, baina urte askotan maila horretako talde bati entzun diogun soinurik txarrenea izan zuen bere kontzertuak. Lehen kantutik *—The new pollution—* azkenera arte *—Devil's haircut—*, une batzuetan kenduta, bozgorailuetatik aterata zen soinuak enlatatua zirudien, inolako ñabardurarik gabekoa. Bateria eta baxuaren zurrumbiloan galtzen ziren gainerako tresnak, eta bereziki haize instrumentuak, baina tarte akustikoan ere ez zuten lortu soinua garbia izatea. Jakina da Anoetako kiroldegia akustika ez dela kontzertuetarako



JUAN HERRERO / EFE

Beck, Anoetako kiroldegian emandako kontzertuan.

egokiena, baina demostratuta dago ere posible dela soinu ona ateratzea.


Soinuaren eragozpen horrek goitik behera baldintzatu zuen kontzertua, ene irudiko, handi izan zitekeena ikuskizun entretenigarri bihurtuz. Izan ere, zaila da Beckekin aspertzea, bere *break dance* mugimendu eta James Brownengandik ikasi dantza urrats dotoreekin. Gainera, ondo baino hobeto menperatzen dituzte berak eta bere taldekideek ikuskizunaren giltzak. Batzuk ezagunak. Esaterako, seigarren edo zazpigarren kantuan hogeikusle igoarazi zituen eszenatikira, *Mixed bizzness*-en dantzan lagun zezaten. Orijinalagoa izan zen azken biseko *numeroa*. Izotz gaineko hockey jokalarik galaktikoak jantzita agertu ziren, eta tronpetak joleak badmintonean jolasten hasi ziren, gainontzeak *Devil's haircut* jotzen ari ziren bitartean. Ondoren, teklatu joleak *—kristoren piurarekin, egiaz—* lurrean etzanda ariketak ekiteari ekin zion, eta bateria jo-

lea gerritik ateratzen zitzaion arnasa hartzeko tutu bati lotuta agertu zen, itomen keinuak eginez. Azkenik, Beckek eszenatikia *prezintatu* zuen saioa amaitua zela adierazteko. Jendea, entregatuta.

Funk, hip hop, country eta punk

Musikalki. kontrastez beteriko artista dela baieztatu zuen, estilo mutur batetik bestera jauzi egin baitzuen. *Mellow gold* eta *Odelay* lehen diskoen soinu eta erritmo nahasketatik *Midnite Vultures*-en funk eta soul-era pasatu zen, David Bowieren bertsio bat tartekatu zuen, country eta folkaren larre akustikoetan sartu zen ondoren, eta punk-hardcorean amaitu zuen. Bere lan guztien errepasoan, jendeak entzun nahi zituen kantu ezagunak jo zituen *—Loser, Where it's at, Pay no mind, aipatutako Devil's haircut eta The new pollution, Sex laws—*, eta ohikoa duen tarte akustikoan baino ez zuen moteldu bi orduko erritmo bizi eta dantzagarria.

IRAGARKI MERKEAK 943 300 222

OSTIELA! ALDIZKARIAREN
22. ALEA KALEAN!

"Antzerki hutsa da zurea" eta "MUNDUA ANTZERKI / ANTZERKI MUNDUA" erdi-monografikoa dator udako aldizkari komeriantean, diseinu eta maketazio berrituta. Maskarada bandako MIKEL MARTINEZi elkarrizketa nagusia. Ionesco eta Beckett Godoten zain, e.a. Kanaango ezteak, Lazaroren berpizketa, Ni eta nire sudurra, Nik ez nuen nahi eta Gubernu-Ordezkararen heriotza antzezlanak osorik. Marxkarada, Pistolaren Begi Zuri-Beltzak, Gabonetako Ikuskizuna, Gabon Sariak eta El Borracho Burlado-ren testu-zatiak ... "Papalagiak", samoar buruzagiaren hitzaldi ospetsuak (Agur Jaunak Gizon Zurialdi), Lope AGIRREKO unibertsalaren "Carta a Felipe II" harigarria; Noam CHOMSKY intelektual mundialaren bizitza eta lanak; H.D. THOREAUren "Desobedientzia Zibila"; *Mogimendu Situazionalista*; Brendan Behanen "Exekuzioa" ... Dario Fo, Anonimo Torrentianoa, "Karbi", Mikel Elorza, Koldo Goitia, Axier Mujika, Edurne eta Amaia Alustiza, Mixel Sarasketa eta beste belar batzuk

Merke-merke, 400 pezetan salgai E.H. osoko liburutegia eta kioskoetan. Urteko harpidetza (4 ale) 1.600 pztan (ale "atzeratuak" erdi-prezioan). Eskatzen duen Ordiziako 131 p.k.-ra edo deitu (edo idatzi) 943-161835 tfno./faxera. ostiela@autovia.com

www.ostiela.com

33 x 33 mm

33 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 3.000
Astea (6 egun): 2.300
2 aste (12 egun): 2.100
Hilabetea: (24 egun): 1.500